

AITZINA

Editorea: Fermin Munariz. Koordintzailea: Mariasun Monzón. Aholkularia: Iñaki Egaña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal.
 Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 behe. 31001 Iruña. Tfnoa. 948-21 99 99. Fuxa: 948-212329. E-mail: aitzina@haika.net

NORANTZA

ROSA MIREN PAGOLA

DEUTUKO UNIBERTSITATEKO EUSKARAKO ERREKTOREORDEA

«Euskara txiro geldituko zen euskalkirik gabe»

Ana Elejabeitia eta Alexander Iribarrekin batera «Euskararen hotsak» CD-Roma osatu du Deutuko Unibertsitateko Euskarako errektoreordea den Rosa Miren Pagolak. «Euskararen hotsak» prestatzeko bi urtez aritu dira talde honetako partaideak Euskal Herri osoan barna inkestak egiten, eta, Xuberoako edo Lapurdiko lekukoek entzun ondoren, Rosa Miren Pagola urdui gelditu da, euskalkiak kinkalarrian daukela ikusi duelako.

BEGOÑA SIMON

«Euskararen hotsak» izeneko CD-Romean Euskal Herriko euskalkiak bildu dira. Rosa Miren Pagola izan da euskara hitzegitako modu ezberdinetan buruzko bilduma honen egileetakoa bat.

Zein eduki du «Euskararen hotsak» izena daukan CD-Rom honek?

Bi arlo ditu CD-Romak. Alde batetik dibulgazioarena, bere izenak esaten duen bezala, euskararen hotsak, hau da, euskalkiak, biltzen dituelako. Arlo hori helduta eta adibide moduan esan dezaket CD-Rom honetan entzun daitekeela nola egiten diren hots horiek euskalki guztietan. Gero beste arloa dago adituei zuzendua, euskararen akusti-

ka aztertzea. CD-Roma lau hizkuntzotan atera dugu: euskaraz, gaztelerez, frantsesez eta ingelesez, euskaldunak ez direnek euskara ezagutzeko aukera izan dezaten.

Ikusten da garrantzi handia eman diezuela euskarako euskalkiei. Zein paper jo-



Mikel Martinez

katzen dute euskalkiek gure hizkuntza?

Garrantzi handiko papera. Hizkuntz estandarizatu beharrezkoa da, baina euskara batua aberastu behar da, eta aberastasu hori euskalkiek ematen diote. Euskara txiro geldituko zen euskalkirik gabe.

Lana hau argitaratzeko CD-Rom formatua aukeratu duzu. Abididea izan daiteke euskara informatika mailan nolako presentzia hartzen ari den kontratuzko. Euskara esparru berrietara zabaltzea beharrezkoa da?

Nire ustez, beharrezkoa da gaur egun teknologiak ematen dituen

bidez baliatzea. Orain dela hogeitau urte halako lanak kasetetan argitaratzen ziren, entzun egiten ziren. Egun beste tresna bat dugu eta, tresna horren bidez, zeu ere partaide sentitzen zara. Zuk zeuk aukeratu duzu, begiratu duzu eta abar. Teknologia berriei jarraitu behar zaie.

Lan taldeko partaide guztiek hezkuntza alorrean egiten duzue lana. Kasualitatea da? Zergatik sortu da halako lan bat egiteko ideia irakaslegoaren mundutik?

Gure lanerako, hezkuntzarako balia bide berria delako. Nire ustez, inportantea da irakaskuntza alorrean euskararen aberastasuna zabaltzea, eta horretarako euskalkiak zabaltu behar ditugu.

CD-Rom hau egiteko bi urtez aritu zarete Euskal Herri osoan barna inkestak egiten. Hainbeste zendekin hitz egin ondoren, nola ikusi duzue euskararen egoera?

Euskara, Hegoaldean batez ere, apurka apurka eta astiro astiro, emeki, ondo doa. Nire ustez, jendea euskarak duen garrantziaz jabetzen ari da, eta gero eta gotorrago dago. Hori, euskarari buruz, orokorrean, hitz egiten badugu, baina, euskalkiei buruz hitz egiten badugu, beste gauza esango nuke, euskalkiak ondo ikusten ez ditudalako. Lanpurteraz, abididez, eta bere egoera ikusi ondoren, ez dakit hitz egin daitekeen. Zuberera ere kinkalarrian dago. Bizkiera ere zenbait lekutan ez dago ondo. Hobeto dagoena gipuzkera da, baina, askotan, bere eragina bortitza izan daiteke zenbait lekutan.

ZIRTOKA



Txillardegí

Aski eta sobera

Oroitzen ahal zarete? Fernando Buesa, «vice-Lendakari»... Jose Ramón Recalde, «sportavoz del Gobierno Vasco»... Arzálluz, Múgica Herzog-en eskutik... Gogorra izan da gero!

Hogei urtez jasan dugu «demócratas/violentos» sailketa lotsagarri hura. Bizia emateko gertu egon diren gutardiak 5, 10, 15, 20 urte eman dituzte preso, azkeneko gaiztaginekin nahasirik, zerbait esan ezazaketarik isiltzen zirelarik. Edo-ta... txaloka hasten!

Baina, kasu! Deskalabroa ez da amaitu. Lehen «violento» hitzaren atzean biltzen ziren gorrotoa eta herria, orain moztzoro berriz jantirik dotoz, baina muin herberarekin. «Frentismo» hitzak barbu da segida. Baina Frente Española hor dago, sendo. Zein da, bada, Buesaren eta Mosqueraren arteko desberdintasuna? Ezin digute erantzun. Noski! Politikagintza errealean alorretan, eta Euskal Herriari buruz bereziki, PPP eta PSOEek desberdintasunik bater ez dutelako.

Kontraesan nagusiak, bigarren mailako diferentzien gaitetik, «unidad de acción concertada en torno a un programa común mínimo» ekartzen baitu (Telefororen hitzak dakartzat orain hona). Eta horri, jaun andereok, «F.L.N.» deritzo. Sigla hirukun hau ez dugu guk asmatu; behin eta berriz errepikatzen den errealitate bakarrari dagokiolako.

Badirudi azkeneko hogeitau honetan jasan dugun izurritia, hala ere, gaitiduta dagoela funtsean, eta Auiria-Enean-en lehenengo antiperturbalea betirikoa joana dela. Agian bai!

Hori dela bide, Madril sutan dago, erotuta, etsita, nola joka ez dakiela. Euskal Herriak bidea ongi hautatu duen seinale seguru. Sinatu egin behar orain denek ekainaren 13an bide honi eutsiko diogula.

Aitzindariak

JOHAÑE HARIZPE

1768-1855



3000 GUDUKARIREN KONPAINIA GIDATU ZUEN GOTORKI ETA KURAIOS: USKALDUN KAZURRAK



EZ DA IZAN GEROZTIK FRANTZIAKO ARMADAN IPAR ESKUALDUNEZ BEREZ EGINIK OZTERIK.



TIROL ETA PRUSIAKO KONPAINETAN JENERAL KARGOA EMAN ZION EMPERADOREAK: POLONIA ETA ESTAINIAKETAU, KONTE ETA OHOREZKO LEJIONEKO OFIZIER. AZKENEAN MARXIAL

ARROLAN, BERDAITZEN, IRURTZUNEN NAGUSITU ZITZAIZKIEN TROPA ESPAINOLER, HANITX GUTIAGO IZANAGATIK...



1810EAN MADRILEKO JENDEAK ALTXATU ZIREN BONAPARTEREN KONTRA; HARIZPEK MASA-KRATU EGIN ZITUEN.



ASISKO + GOIA + SÜ HAZIA